

## **AKTA**

### **Udalaren ezohiko Osoko Bilkura**

**ORGANOA:** Udalbatza  
**DEIALDIA:** Lehenengoa  
**EGUNA:** 2015-06-25 (07)  
**ORDUA:** 19:00 – 19:30  
**LEKUA:** Markina-Xemeingo Udaletxeko bilkura aretoan.

#### **BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Juan Jose Txurruka Txurruka (BILDU)

**Zinegotziak:** Josune Baskaran Etxeberria (EH BILDU)  
Aitor Odiaga Garate (EH BILDU)  
Iratxe Lasa Arana (EH BILDU)  
Joseba Iraolagoitia Martinez (EH BILDU)  
Isabel Mandiola Zuazo (EH BILDU)  
Andoni Malaxetxebarria Kaltzakorta (EAJ/PNV)  
Luis Mari Malaxetxebarria Elordi (EAJ/PNV)  
Ainara Gandiaga Longarte (EAJ/PNV)  
Alex Aretxabaleta Egia (EAJ/PNV)  
Sorkunde Maguregi Maguregi (EAJ/PNV)

Idazkari eta kontu-hartzailea: Iratxe Rementeria Otxandio

#### **AZTERGAIK:**

- 1.- Udala eratzeko eta alkatea aukeratzeko osoko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
- 2.- Udalbatza zenbatero eta noiz bilduko den den erabakitzea.
- 3.- Informazio batzordeak eta lantaldeak eratu eta osatzea
- 4.- Beste organo eta erakunde batzuetarako udal ordezkariak izendatzea.
- 5.- Diruzaina izendatzea eta zehapen espedienteen instrukziogilea izendatzea.
- 6.- Alkateordeen izendapena eta Tokiko Gobernu-Batzordea eratzea.
- 7.- Kontu Batzorde Berezia sortu eta kontratazio mahaikideak aukeratzeta.

8.- Talde politikoaren antolaketa.

9.- Udalkideek batzarretara-eta joateagatik eta talde politikoek zer kobratuko duten erabakitzea eta, hala badagokio, Alkatearen lansariak onartzea.

### **1.- UDALA ERATZEKO ETA ALKATEA AUKERATZEKO OSOKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.**

Alkateak hasiera eman dio bilerari, Udaltzatza osatzen duten zinegotzi guztiak bertan direla, eta 2015eko ekainaren 25ean Udala eratzeko eta Alkatea aukeratzeko egindako osoko bilkuraren aktaren zirriborroa irakurri eta gero, aho batez onartu dute.

### **2.- UDALBATZA ZENBATERO ETA NOIZ BILDUKO DEN ERABAKITZEA.**

Udaltzatza, kide guztiak ados daudela, ohiko osoko bilkura hilero egitea erabaki du aho batez. Hain zuzen ere, hilean hileko bigarren egunean. Hor egunean ezin bada egin, motiboren bat dagoelako edo tratatzeko gairik ez dagoelako, hurrengo hilean edo ahal denean egingo da..

Hori gorabehera, Udalak behar beste ezohiko bilera egingo ditu, erabaki beharreko gaien arabera.

### **3.- INFORMAZIO BATZORDEAK ETA LANTALDEAK ERATU ETA OSATZEA.**

Gaia eztabaidatu eta gero, Udaltzatza udal informazio batzorde iraunkor bakarria sortzea erabaki du aho batez. Batzorde horrek, Toki Erakunde Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoari buruzko legearen 123-126 eta 134-138 artikuluek xedatutakoaren menpe jardungo du. Behar denean bilduko da, batzordekideei galdetu eta gero zehaztuko den egunean eta Osoko Bilkurak tratatu eta erabaki beharreko gaiak prestatzeko behar besteko aurretiaz. Udaltzatza kide guztiak parte hartuko dute batzordean.

Udaltzatza honako lantaldeak sortzea erabaki du, aho batez baita ere; eta horietan, alkateak eta zinegotziek ezezik, udalarekin zerikusirik ez duten beste edozein pertsona ere parte hartu ahalko du.

Ogasuna: Isabel Mandiola, Ainara Gandiaga eta Luis Mari Malaxetxebarria.

Hirigintza: Aitor Odiaga, Josune Baskaran, Alex Aretxabaleta eta Luis Mari Malaxetxebarria.

Kirola: Joseba Iraolagoitia, Aitor Odiaga, Andoni Malaxetxebarria y Alex Aretxabaleta Egia.

Kultura: Juan Jose Txurruka, Isabel Mandiola eta Luis Mari Malaxetxebarria.

Euskara: Iratxe Lasa, Isabel Mandiola y Luis Mari Malaxetxebarria.

Orgizatea: Juan Jose Txurruka, Josune Baskaran, Aitor Odiaga eta Luis Mari Malaxetxebarria.

Ingurumena: Aitor Odiaga, Joseba Iraolagoitia, Luis Mari Malaxetxebarria eta Alex Aretxabaleta.

Parekidetasuna: Josune Baskaran, Iratxe Lasa, Sorkunde Maguregi eta Ainara Gandiaga.

Kultura aniztasuna: Iratxe Lasa eta Sorkunde Maguregi.

Lantaldeek zelan funtzionatuko duten: ez dira udal organoak eta, beraz, askatasun osoa izango dute zelan eta nortzuk osatu erabakitzeke. Hau da, arestian adierazitako zinegotzietz gain, kaleko edonor ere izan daiteke horietako kide, lantaldeak lantalde tratatu beharreko gaiekin interesa izanez gero.

Edozein kasutan, lantalde horietako edozeinen proposamenak idatziz aditzera eman beharko zaizkio Alkateari, ezer egiten hasi orduko. Arrazoi bat dago horretarako, eta hauxe da: Udalak lege batzuen menpe jardun behar du uneoro, eta edozein erabaki hartu aurretik, hainbat izapide bete behar ditu. Besteak beste, kreditua dagoen ikusi, lizitazioa sustatu eta publizitatea eman eta hartu nahi den erabakia legeekin bat ote datorren egiaztatu.

### **4.- BESTE ORGANO ETA ERAKUNDE BATZUETARAKO UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA.**

Toki Erakunde Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoari buruzko legearen 38. artikulua arabera, Udaltzatza osoari dagokio bere eskumeneko organo eta erakundeetako udal ordezkariak izendatzea.

Hori horrela, eta gaia eztabaidatu eta gero, Udaltzatza hauxe erabaki du aho batez:

1) Honako zinegotziak izendatzea udal ordezkari, erakunde eta organismo hauetan:

Azaro, Lea-Artibai Landa Garapena eta Lea-Artibai Garapen Agentzia: Isabel Mandiola.

Lea-Artibaiko Amankomunazgoa: Juan Jose Txurruka eta Alex Aretxabaleta.

Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa: Isabel Mandiola Zuazo eta Luis Mari Malaxetxebarria.

San Roke Egotetxea: Juan Jose Txurruka eta Alex Aretxabaleta.

UEMA: Iratxe Lasa, Josune Baskaran y Aitor Odiaga.

Kanposantua: Juan Jose Txurruka eta Andoni Malaxetxebarria.

Hezkuntza eta aisialdia: Josune Baskaran y Sorkunde Maguregi.

Komunikazioa: Josune Baskaran Etxeberria y Ainara Gandiaga.

2) Erabakia interesatu guztiei bidaltzea, jakinaren gainean egon daitezen eta behar izan litezkeen ondorioetarako.

#### **5.- DIRUZAINA ETA ZEHAPEN ESPEDIENTEEN INSTRUKZIOGILEA IZENDATZEA.**

Isabel Mandiola proposatu dute diruzain eta Joseba Iraolagoitia zehapen espedienteen instrukziogile kargurako, eta proposamen biak aho batez onartu dituzte.

#### **6.- ALKATEORDEEN IZENDAPENA ETA TOKIKO GOBERNU-BATZORDEA ERATZEA.**

Alkatearen 2015eko ekainaren 22ko dekretuaren berri eman da, hitzez hitz hauxe dioena:

*“ALKATE-DEKRETUA. Alkateordeen eta Tokiko Gobernu-Batzarreko kideen izendapena.*

*Alkateordeak beharrezko organoak dira Markina-Xemeingo Udalean, Toki Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Araubideari buruzko Erregelamenduko 35.2 artikuluan xedatutakoari jarraiki.*

*Alkateak Tokiko Gobernu-Batzarreko kideak diren zinegotzien artean askatasun osoz izendatu eta kargutik kentzeko erabakia har dezake. Hartutako erabakia Udalbatzari aditzera eman beharko dio, honek egiten duen lehenengo bileran, izendatutakoei jakinarazi eta, azkenik, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu. Edozein kasutan, Alkateak erabakia sinatu eta hurrengo egunean jarriko da erabakia indarrean.*

*Ezin da Tokiko Gobernu-Batzarra osatzen duten kideak baino alkateorde gehiago izendatu. Haien eginkizuna Alkatea ordezkatzera da, izendatuak izan diren ordena berean, eta ordezkatu ere, Alkatea kanpoan dagoenean, gaixo dagoenean edota bere ahalmenak betetzeko eragozpenen bat duenean. Era berean, alkate-lanak bereganatuko dituzte Alkatetza hutsik gelditzen bada, hurrengo Alkatea karguaz jabetu arte, beti ere ROFaren 47. artikuluan ohartemandako muga eta ezaugarriak aintzat hartuta.*

*Tokiko Gobernu-Batzarra 2015eko ekainaren 25eko Osoko Bilkura berezian eratuko da, baina hauexek zinegotziak proposatu dira Gobernu-Batzordeko kide izateko:*

*Juan Jose Txurruka Txurruka*

*Aitor Odiaga Garate*

*Josune Baskaran Etxeberria*

*Andoni Malaxetxebarria Kaltzakorta*

*Horietatik, Alkatea naizen honek, eta legeak ematen dizkidan aginpideaz baliatuta, hauexek izendatu ditut alkateorde:*

*Lehenengo alkateordea: Aitor Odiaga Garate.*

*Bigarren alkateordea: Josune Baskaran Etxeberria.*

*Edozein kasutan, izendapena ekainaren 25eko osoko bilkura ostean jarriko da indarrean.*

*Izendatutako horiei dagozkie ebazpen honetako aurrekinetan adierazitako eginkizunak, izendatuak izan diren ordena berean, betetzea.*

*Hartutako erabaki honen berri banan-banan emango zaie izendatuei; ebazpena Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Udaltzarrari bere lehen bileran aditzera emango zaio”.*

Hasiera batean, Tokiko Gobernu-Batzarra hamabost egunetik behin bilduko da, barikuan, 08:00etan, eta Alkateak propioak izan arren bere esku utzi ditzakeen eskumenak izango ditu, salbu legez ordezkatzan eman ezin diezazkiokeenak.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da, Tokiko Gobernu-Batzarra eratu eta osatzea aho batez onartzea du, eta erabakia izendatutakoei banan-banan jakinaraztea eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta udal web-gunean argitaratzea erabaki du aho batez

#### **7.- KONTU BATZORDE BEREZIA SORTU ETA KONTRATAZIO MAHAIKIDEAK AUKERATZEA.**

Udalbatzak **Kontu Batzorde Berezia** sortzea erabaki du. Eginkizun bakarra Kontu Orokorra aztertzeari izango du eta, legeak xedatutako moduan, Ogasuneko lantaldeko udalkideek osatuko dute.

**Kontratazio Mahaia** sortzea ere erabaki du, honako hauek osatuko dutena: Juanjo Txurruka, Aitor Odiaga eta Ainara Gandiaga zinegotziak, gehi Txema Iriondo Maguregi arkitektoa, Iratxe Rementeria Otxandio idazkari eta kontu-hartzailea eta Inma Aransolo Arizmendiarieta, mahaiko idazkari jardungo duena.

#### **8.- TALDE POLITIKOEN ANTOLAKETA.**

Toki erakundeen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoari buruzko legeak, azaroaren 28ko 2568/86 Errege Dekretuz onartutakoak, xedatutakoarekin bat etorrita, Udaltzarak EUSKAL HERRIA BILDU eta EAJ/PNV talde politikoak sortzea erabaki du aho batez, eta Juan Jose Txurruka eta Ainara Gandiaga izatea, hurrenez hurren, horien bozeramaleak.

#### **9.- UDALKIDEEK BATZARRETARA-ETA JOATEAGATIK ETA TALDE POLITIKOEN ZER KOBATUKO DUTEN ERABAKITZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ALKATEAREN LANSARIA ONARTZEA.**

Zinegotziek eta talde politikoek aurreko legealdian batzarretara-eta joateagatik jaso izan dutena kobratzen jarraitzea proposatu eta erabaki da. Hau da, 150 euro zinegotzi bakoitzari osoko bilkurako.

Zinegotzien ordainsariei dagokien atxikipena ezarriko zaie pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitorpenerako.

Udaleko talde politikoek orain arte kobratu izan dutena kobratuko dute legealdi honetan ere. Hau da: 406,58 euro/hilean EUSKAL HERRIA BILDUk (6 udalkide) eta 397,05 euro/hilean EAJ/PNVk (5 zinegotzi).

Alkatearen lantsariei dagokienez, berriz, bere dedikazioa lanaldi osokoa izatea erabaki dute eta hilean 3.000 euro gordin kobratu dezala hamalau pagatan.

Erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean emango da argitara eta udaletxeko iragarki taulan eta web-gunean ere ipiniko da, baina erabakia hartu eta biharamunetik aurrera jarriko da indarrean.

Erabakia udaleko Ekonomia arloari ere jakinaraziko zaio, aurrekontuan Alkatearen lantsaria eta zinegotzientzako eta talde politikoentzako onartutakoa ordaintzeko beste diru gorde dezan.

ETA BESTERIK EZ AZTERTZEKO, ALKATEAK AMAITUTZAT EMAN DU BATZARRA, 19:30EAN, ETA UDALEKO IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILE NAIZEN HONEK HAN ESAN ETA ERABAKITAKO GUZTIAREN FEDE EMAN DUT.

ALKATE-UDALBURUA,  
Juan Jose Txurruka Txurruka

IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA,  
Iratxe Rementeria Otxandio